

Topalekua

92 zk. 2017ko otsaila

febrero 2017 - n.º 92

1. orr.: UPV/EHU-ko Gizarte Kontseiluak onartu du 270 irakasleri ordainsari osagarriak esleitzea eta finkatzea

2. orr.: GTCI (Global Talent Competitiveness Index) indizeko bigarren postuan Bilbo hiria dago, talentua atxikitze gaitasunaren arloan

3. orr.: IKT arloko sailkapenaren aurrealdean Euskal Autonomia erkidegoa, Madril eta Nafarroa daude

4. orr.: Azken hamar urtean hiru aldiz handiagotu da Euskal Autonomia erkidegoko ekoizpen zientifikoa

UPV/EHU-ko GIZARTE KONTSEILUAK ONARTU DU 270 IRAKASLERI ORDAINSARI OSAGARRIAK ESLEITZEA ETA FINKATZEA

UPV/EHUko Gizarte Kontseiluaren Osoko Bilkura abenduaren 23an bildu zen Bilbon, eta ordainsari osagarri gehigarrien C1 eta C2 tarteak esleitzea eta finkatzea onartu zuen. Horrela, guztira, 270 unibertsitate-irakasleri aintzat hartu zaie unibertsitatean eginiko lana eta arduraldia; izan ere, 2016ko uztaileko deialdian egiaztatu zituzten merezimenduak.

Banakako osagarri horiek aurrez ebaluatu zituen Unibasq-ek, eta UPV/EHUko Gobernu Kontseiluak ere ontzat eman zituen; beraz, Kontseiluak esleitu egin zituen. Horrez gain, Kontseiluak erabaki zuen irakasle eskatzaileei akordioa eta gainerako datu egokiak jakinaraztea.

Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateari hiru urtean atxikita egon

direla ziurtatzen badute, irakasleak eta iker-tzaileak C1 mailan sartzen dira; zazpi urtean atxikita egon direla egiaztatzen dutenak, C2 mailan.

Osoko bilkuraren saio berean, Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitateak eskatutako aurrekontu-aldaketa batzuk onartu zituen Kontseiluak.

Kide berriak sartzea

Hauteskunde-prozesua amaituta, eta errektore-talde berria osatuta, Kontseiluko berezko kide gisa sartu dira Nekane Balluerka, errektorea, eta Mikel Garmendia, idazkari orokorra. Bestalde, Bizkaiko Batzar Nagusiek Jon Iñaki Zarraga Bujedo izendatu dute kontseiluko ordezkari.

GTCI (GLOBAL TALENT COMPETITIVENESS INDEX) INDIZEKO BIGARREN POSTUAN BILBO HIRIA DAGO, TALENTUA ATXIKITZEKO GAITASUNAREN ARLOAN

Lehiakortasunaren eta Talentuaren Munduko Indi-zeak –ingelesezko izenaren arabera, GTCI– erakusten duenaren arabera, talentua atxikitze indar handiena duten hirien sailkapeneko bigarren postuan Bilbo hiria dago. Azterlana Adecco-k aurkeztu zuen Davos herrian, duela gutxi. Lan zehatza da, eta lehiakortasunari lotuta sortzen duten arazoak nola konpondu aztertzen du. Sailkapenean 34 herrialdetako 46 hiri aztertu dira, haien garrantziaren eta ezaugarrien arabera hautatuta. Sailkapen horretan Madril 6. postuan dago, Bartzelona

18. postuan eta Zaragoza 30. postuan. Azterlanerako hautatu zuten EAeko hiriburu bakarra Bilbo izan zen.

Kopenhage, Zürich eta Helsinki hiriek hartu dituzte munduko sailkapen horretako lehenengo postuak. Sailkapenean sartu diren estatuetak hiri bakoitzak gaitasun bat eskaintzen du. Ildo horretatik, talentuaren hazkundera Madril nabarmendu da; Bartzelona eta Bilbo bereziki trebeak dira talentua atxikitzen; eta «jakintza eraikitze» gaitasunari buruzko azpiatalean Bilbo laugarren postuan dago mundu osoan.

SAILKAPENAK ETA PUNTUAZIORIK ONENAK LORTU DITUZTEN 10 HIRIAK, GCTCI INDIZEAREN ZUTABE BAKOITZEKO

1. zutabea: Erraztailak

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Dublin	91,3
2	Zürich	80,9
3	Kopenhage	76,9
4	Paris	71,1
5	Helsinki	67,4
6	Eindhoven	59,8
7	Göteborg	59,5
8	San Frantzisko	57,4
9	Hannover	56,9
10	Berlin	55,1

2. zutabea: Bereganatzea

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Zürich	95,2
2	San Frantzisko	91,1
3	New York	86,3
4	Paris	81,4
5	Kopenhage	80,4
6	Viena	80,1
7	Eindhoven	77,0
8	Londres	76,4
9	Helsinki	74,6
10	Berlin	74,1

3. zutabea: Hazkundera

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Kopenhage	92,5
2	Los Angeles	92,3
3	New York	92,3
4	San Frantzisko	92,3
5	Sidney	80,7
6	Helsinki	78,5
7	Madril	77,7
8	Göteborg	71,5
9	Cardiff	70,6
10	Londres	67,3

4. zutabea: Atxikipena

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Viena	79,0
2	Bilbo	77,6
3	Mexiko Hiria	77,1
4	Brno	76,3
5	Johannesburg	75,9
6	Casablanca	74,5
7	Tallinn	73,1
8	Cardiff	71,5
9	Kairo	70,1
10	Bartzelona	69,9

5. zutabea: Trebetasunak erabiltzea

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Brno	100,0
2	Krakovia	88,2
3	Kiel	87,7
4	Hannover	85,9
5	Viena	72,2
6	Riga	70,6
7	Berlin	70,5
8	Tallinn	68,1
9	Nantes	63,6
10	Bolonia	59,6

6. zutabea: Jakintza globala eraikitzea

POSTUA	HIRIA	PUNTUAZIOA
1	Kopenhage	76,5
2	San Frantzisko	72,7
3	Zürich	70,8
4	Bilbo	63,3
5	Madril	63,1
6	Los Angeles	60,3
7	Göteborg	56,1
8	Dublin	54,8
9	Bartzelona	54,2
10	New York	54,2

Azterlana irakurri ondoren, Europako talentuaren zati handia hiri txikietan (400.000 biztanle baino biztanle gutxiago dituztenetan) biltzen dela ondoriozta daiteke. Izan ere, bi milioi biztanletik gora dituzten europar hirien artean Madril eta Paris baino ez daude lehenengo hamar postuetan. Giza Baliabideen arloko enpresak azpimarratu du «markak sortzeak, bereizteak eta bizkortasunak hiri txikien talentuaren lehiakortasuna bultzatzea», hiri handiak atzean utzita.

Hiriek lidergoa berreskuratu dute

Azterlanaren egileen arabera, gaur egun talentua da munduko lan-merkatuaren dibisa nagusia. Hortaz, enpresa-arloko erabakiak hartzen dituztenek, politiken egileek eta akademikoek ezin hobeto ulertu behar dute faktore hori. «Gaur, inoiz ez bezala, enpresek eta zuzendariak garrantzi handia ematen diote enpresak hobetzeko aldaketak egiteari; beren enpresetako talen-

tu baliodunena enpresari atxiki nahi diote, eta bereziki zaindu nahi dute, lehiakideen erritmoari eutsi ahal izateko, eta lidergoa sendotzeko».

GTCI 2017ko edizioako gai nagusia talentua eta teknologia da. Etorkizunari buruzko iragarpen ezkor batzuek «enplegurik gabeko» etorkizuna irudikatzen zuten arren, txostenaren analisiek erakusten dute, pertsonen, makinaren eta algoritmoen nahasketaren bidez, lan-etorkizuna sortzen ari dela, eta gaitasun berriak behar, eta eskuratu egingo direla. Testuinguru horretan, Alain Dehaze-k, Adecco enpresako zuzendari nagusiak, haxe nabarmendu du: «hiriak berreskuratzen ari dira XV. eta XVIII. mendeetan zituzten lidergo-eginkizun batzuk; eta joera hori bereziki agerikoa da talentuaren gaitetan. Azken hamarkadotan, munduko bazter guztietan herrien eta udalerrien posizioa nabarmendu da, eta haietako batzuetan laneratzeko estrategia proaktiboak ezarri dituzte».

IKT ARLOKO SAILKAPENAREN AURREALDEAN EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA, MADRIL ETA NAFARROA DAUDE

IVIEk eta BBVA Fundazioak «La competitividad de las regiones españolas ante la economía del conocimiento» eginiko txostenean jasotakoaren arabera, Euskal Autonomia Erkidegoak, Madrilek eta Nafarroak Informazio eta Komunikazio Teknologien garapenean espezializazio eta indar handiena dute, beste eskualde batzuen aldean.

Datu hori are garrantzitsuagoa da autonomia-erkidego horietako datu ekonomikoak ere hobeak direlako (txosten beraren arabera); hau da, Espainiako estatuko batezbestekoa baino askoz ere hobeak dira erkidego horietako emaitzak. Adibidez, lanaren produktibitatearen arloan, estatuko batezbestekoa baino %26 handiagoa da EAEkoa. Aitzitik, IKT arloko ezagutzak ahulen dauden erkidegoetan (Gaztela-Mantxan, Andaluzian eta Extremaduran) produktibitate-eta biztanle bakoitzeko errenta-zifrarik txikiak jaso dira.

Erkidego bakoitzean aztertu dute honako bi alderdi hauen arteko lotura: batetik, jakintzaren erabilera eta erabilera horretako faktoreak; eta, bestetik, errenta eta aberastasuna sortzeko gaitasuna. Besteak beste, azterlan horretan ondorioztatu dute autonomia-erkidegoek jakintzaren ekonomia zenbat eta gehiago garatu, orduan eta hobeto egin diotela aurre krisiari (errentari, produktibitateari eta enpleguari dagokienez).

IVIERen eta BBVA Fundazioaren azterlanean hiru ardatz nagusi ezarri dituzte jakintzaren ekonomiaren inguruan: oinarri teknologikoko kapital fisikoak (makinak eta, bereziki, Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologia (IKT)),

gaitasun handiko giza kapitala eta I+G+b-ko jardueren garapena. I+G+b nola ezarri den aztertzeko atalean, Europako Batzordeak herrialdeei aplikatzen dien Berrikuntza-aren Indize Sintetikoa autonomia-erkidegoei aplikatu die. Kanpoko faktore baldintzatzaile makroekonomiko eta mikroekonomiko askok –autonomia-erkidego bakoitzeko gastu- eta inbertsio-politikek edo enpresa-sarearen osakerak– oinarritzko osagaiak aberasten dituzte.

Berrikuntza-aren Indize Sintetikoko adierazleek eman duten informazioa abiapuntutzat hartuta, kluster bidezko estatistikak egiteko metodo baten arabera sailkatu dira erkidegoak. Hartara, I+G+b-ko sistemen arabera, hiru lurralde mota bereizi dira:

- Maila handiko berrikuntza: Madrilgo Erkidegoa, Katalunia, Euskal Autonomia Erkidegoa, Nafarroako Foru Erkidegoa eta Aragoi.
- Maila ertaineko berrikuntza: Valentziako Erkidegoa, Galizia, Gaztela eta Leon, Kantabria, Errioxa, Andaluzia eta Asturiasko Printzerria.
- Maila txikiko berrikuntza: Murtzia, Gaztela-Mantxa, Kanariak, Balearrak eta Extremadura.

I+G+b sistemari buruzko azterlanean, Euskal Autonomia Erkidegoa nabarmendu dute. Izan ere, EAEko teknologia-zentroen inguruan ikerkuntza- eta berrikuntza-jardueraren oso bizia sortu da, eta, gainera, ikerkuntza eta berrikuntza oso lotuta daude enpresa-sarearekin; ondo antolatutako zientzia- eta teknologia-politiken emaitza, hain zuzen ere.

Berrikuntza-aren indize sintetikoko aldagaien arteko konparazioa. Euskal Autonomia Erkidegoa eta Espainiako Estatua. 2012-2014 aldiko batezbestekoa

Aldagaien azalpena	EAE	Espainia	EAE/Espainia (Espainia/ = 100)	
1. FAKTORE AHALBIDETZAILEAK				
1.1. Giza baliabideak				
1.1.1. Doktore-tesi gaindituen kopurua, 25 eta 34 urte arteko 1.000 biztanleko	1,56	1,61	96,9	(-)
1.1.2. Hirugarren mailako ikasketak bukatu dituzten 30 eta 34 arteko biztanleak (%)	60,2	42,0	143,3	(+)
1.1.3. Gutxienez goi-mailako bigarren hezkuntzako ikasketak bukatu dituzten 20 eta 24 arteko gazteak (%)	81,2	64,2	126,4	(+)
1.2. Ikerkuntza-sistema irekiak, bikainak eta erakargarriak				
1.2.1. Nazioarteko lankidetzan eginiko argitalpen zientifikoak, milioi bat biztanleko	1.208,2	714,2	169,2	(-)
1.2.2. Argitalpen zientifiko guztien aldean, gehien aipatu diren argitalpenen % 10eko argitalpen zientifikoak (%)	14,7	13,1	112,2	(+)
1.2.3. Gainditu diren tesi guztien aldean, atzerriko ikasleek gainditu dituzten kopurua (%)	17,8	24,4	72,8	(-)
1.3. Finantziarioa eta laguntza				
1.3.1. I+Gn eginiko gastu publikoa, BPGdaren aldean (%)	0,53	0,59	89,0	(-)
2. ENPRESA-JARDUERAK				
2.1. Enpresa-inbertsioak				
2.1.1. Enpresek I+Gn inbertitutako gastua, BPGdaren aldean (%)	1,60	0,67	240,2	(+)
2.1.2. Enpresek I+Gz bestelako berrikuntza-jarduerara batzuetan egin duten gastua, negozioen kopuruaren aldean (%)	0,46	0,42	109,6	(+)
2.2. Jarduera ekintzaileak				
2.2.1. Ikertzaileen kopurua enpresetan, 1.000 landuneko	15,7	5,6	282,1	(+)
2.3. Jabetza intelektualeko aktiboak				
2.3.1. PCT patenteen eskaera, BPGdaren mila milioi euroko	1,82	1,68	108,4	(+)
2.3.2. PCT patenteen eskaera etorkizuneko gako-sektoreen arabera (ingurumenaren, osasunaren... arabera), BPGdaren mila milioi euroko	0,51	0,49	105,0	(+)
2.3.3. Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan eskatu diren marka nazionalak, BPGdaren milioi bat euroko	0,03	0,04	65,7	(-)
2.3.4. Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoan eskatu diren diseinu industrialak, BPGdaren milioi bat euroko	0,75	1,67	44,8	(-)
3. BERRIKUNTZA-AREN EMAITZAK				
3.1. Emaitza berritzaileak				
3.1.1. Enpresa berritzaileak alderdi teknologikoetan (produktuetan eta prozesuetan), enpresa guztien aldera (%)	19,6	13,2	147,9	(+)
3.1.2. Enpresa berritzaileak alderdi ez-teknologikoetan (marketinean eta antolaketa-alderdietan), enpresa guztien aldean (%)	22,9	21,4	106,8	(+)
3.2. Ondorio ekonomikoak				
3.2.1. Maila handiko eta maila ertaineko teknologia-sektoreetako enplegua, manufaktura-industriako enpleguen aldean (%)	43,4	32,1	135,1	(+)
3.2.2. Jakintzan lan intentsiboa egiten duten sektoreetako enplegua (administrazio publikoetako enplegua izan ezik) (%)	47,6	41,8	113,9	(+)
3.2.3. Maila handiko eta maila ertaineko teknologia-sektoreetako esportazioen kopurua, manufaktura-sektoreetako esportazio guztien aldean (%)	47,5	52,9	89,8	(-)
3.2.4. Enpresarako edo merkaturako berrikuntzetatik etorritako negozioen kopurua (%)	21,9	12,7	172,5	(+)

Iturria: FECYT (2016), EIN (2015a, 2015b, 2016a, 2016b, 2016c, 2016d), Hezkuntza, Kultura eta Kirol Ministerioa (2016b), Ekonomia Lankidetzak eta Garapenerako Antolakundea (2016), Patenteen eta Marken Espainiako Bulegoa (2016) eta guk egina.

AZKEN HAMAR URTEAN HIRU ALDIZ HANDIAGOTU DA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOKO EKOIZPEN ZIENTIFIKOA


Bai Espainiako Estatuan, bai nazioartean, Euskal Autonomia Erkidegoko ekoizpen zientifikoa erritmo egonkorrean handiagotu da, azken hamar urteotan. Ikerbasque-k «Zientzia Euskadin 2016» txostena aurkeztu du, eta datuen arabera, hazkunde-tasak handiagoak izanik, hiru aldiz handiagotu da EAEko ekoizpen zientifikoa.

Azterlanean, EAeri buruzko honako datu nagusi hauek aztertu dituzte, 47 adierazle bitartez: ikertzaileen populazioa, zientziaren finantziakzioa, emaitza zientifikoak eta transferentzia teknologikoa. Horren bitartez egiaztatu da, munduko ekoizpen zientifikoa hainbat urtetan handitu bada ere, EAEn garrantzia –estatuan zein munduan– azken hamarkadan era egonkorrean handiagotu dela. Dena den, Euskal Autonomia Erkidegoko hazkunde zertxobait moteldu da azken urteotan, krisialdiaren eraginez. 2015ean, EAEko ekoizpen zientifikoak Espai-

niako estatuko ekoizpen osoaren % 6,55 hartu zuen. Hori horrela, ia hamar urtean, ehuneko 2,6 puntu handitu da EAEn pisu erlatiboa.

Ekoizpen absolutuari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoa bosgarren posizioan dago; biztanle bakoitzeko argitalpenen adierazleari dagokionez, seigarren postuan; eta argitalpen bikainen kopuru handiena duten autonomia-erkidegoen artean, laugarren postuan (gehien aipatu diren argitalpenen % 10ekoak dira argitalpen horiek). Hori guztia ICONO- FECYT behatokiaren datuetan oinarritu da. Erkidego askotan ez bezala, EAEn BPGdaren % 2tik gora inbertitu zen I+Gko jardueretan; arestian aipatutako emaitzek zuzeneko lotura dute erabaki horrekin, hain zuzen ere. Zehatzago esanda, denboraldi berean, 11 eskualdek BPGdaren % 1 baino gutxiago inbertitu zuten I+Gko jardueretan.

ZIENTZIA-EKOIZPENA EUSKADIN (SCOPUS)




* 2015eko datuak behin-behinekoak dira, eta, argitalpen gehiago indexatu ahala, gora egingo dute kopuruek

Sektoreen araberrako ekoizpenari erreparatzen badiogu, unibertsitateek EAEko ekoizpen zientifiko globalaren % 60 hartzen dute –2.859 argitalpen indexatu zituzten 2015ean–, UPV/EHUk bultzatuta. Ondoren, osasun-sektorea eta zentro teknologikoak datoz.

Arlo tematikoen azterketan, txostenean jasota dago Euskal Autonomia Erkidegoan honako hauek nabarmentzen direla: medikuntza, ingeniariaritz, fisika, materialen zientzia, kimika eta biokimika, genetika eta biologia molekularra.

EKOIZPEN ZIENTIFIKOAREN BANAKETA EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOAN, ARLO TEMATIKOEN ARABERA (SCOPUS)



Ikerketa zientifikoak egiten jarduten duten pertsonen kopuruari dagokionez, 2014an, lehenengo aldiz, 12.000 ikertzaile baino ikertzaile gehiago zenbatu ziren, arduraldi osoko jardun baliokidean (EDP). Genero-ikuspegitik, antzekoak dira tesiak aurkeztu dituzten emakumezko eta gizonezko doktoregaien kopuruak, baina, ikerkuntza-ibilbidea sendotzen duten ikertzaileen artean, txikiagoa da emakumezkoen datua. EAEko emakumezko ikertzaileen ehunekoa % 35 ingurukoa da, eta azken hamarkadan ez da aldaketa handirik gertatu. Ikertzaileen erkidegoaren bi herenek –8.063 pertsona EDPn– enpresetan jarduten dute; izan ere, enpresetan eta unibertsitateetan jarduten dute EAEko ikertzaile gehienek.